

## Dena prest Txomin-Txapel egunerako, HUHEZIKo festa eguna

2007/05/14

**HUHEZIKo Euskara Taldea** jo eta ke ari da **Txomin-Txapel eguna** prestatzen datorren ostiralerako, maiatzak 18. Oraindik hainbat xehetasun falta da, baina egitaraua nahiko itxuratuta dago:

- **11:00** Izen ematea Argazki rallyan. Herri kirolak.
- **13:00** Txomin Txapelen jaitsiera eta pregoia, tortilla txapelketa eta triki-poteoa.
- **15:00** Bazkaria.
- **16:30** Bertso partxisa, gure jolasak eta karaokea.
- **18:30** Kapoeira emanaldia, batukada, argazki rallyaren amaiera eta malabare tallerra.
- **20:30** Erromeria/kontzertua.
- **24:00** Amaiera.

Bigarren mailako ikasleek, bai Irakasle Ikasketetan dabiltzanek zein Giza Zientzietakoek, bereziki parte hartzen dute jai honen antolakuntzan.

